

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

321/2019 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez Itelazpi SAK sustatutako proiektuaren interes publikoa adierazten baita. Proiektu hori Kripango udalerriko lurzoru urbanizaezinean (130. zenbakiko lurzatia, 1 poligonoa) instalatuko den komunikazio zentroa da

Itelazpi SA Eusko Jaurlaritzako telekomunikazio sozietateak eskaera bat aurkeztu du Kripango Udalean, udalerriko 1 poligonoko 130 lurzatian jarritako komunikazio zentroa legeztatzeko eskatzen duena.

Kripango Udalak espediente bat bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen barruan dago instalazioaren jardueraren memoria, non jasotzen den komunikazio zentroari lotutako azpiegitura osatzen dutela linea elektriko batek eta antena jasotzaile eta transmitzaileak instalatzeko dorre batek, hori guztiori hesi batek inguratuta, dorrea metalikoa dela, saretaduna, bere kabuz eusten dena, 18 metro altuerako sekzio karratua duela, eta berme elektriko, mekaniko, legal eta SSL egiaztagiria (Konexio Seguruen Geruza) dituela. Zentroa erabiltzen da herritarrei TDT zerbitzu autonomikoa emateko. Espedientean udal arkitektoak egindako txostena ere jasotzen da. Txosten horretan adierazten da lurzatia lurzoru urbanizaezinean dagoela, nekazaritza eta abeltzaintza intereseko babes zonaren kategorian, eta udalerrian indarrean dagoen hiri antolamendurako plan orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorritik, interes publikoko instalazioen erabilera baimentzen dela.

ONARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.- Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente bat ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuaren Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean "ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzeko den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta, gainera, dagokion foru diputatuaren ebazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, aldez aurretik hoge eguneko jendaurrean edukitzeko izapidetza beteta".

Urriaren 2ko 255/2019 Foru Aginduaren bidez, espedienteari hasierako onespina eman zitzaion eta hura 20 eguneko jendaurrean edukitzeko aldia ireki zen, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedienteak, hain zuzen ere, 2019ko urriaren 14ko ALHAOn (119. zenbakia) argitaratu zen. Horretarako emandako epearen barruan, ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Kripango Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak 1.6.1.2. artikuluan "J.1. (babes bereziko eremua) eta J.2 (eremu babestua) landa eremuetako kalifikazio orokorrak zuzenean utzitako eraikuntza erabilerak eta jarduerak" arautzen duenez, nekazaritzako eta abeltzaintzako intereseko eremu babestuan, interes publikoko eraikinak eta instalazioak daude baimenduta, baldin eta, beren izaeragatik, eremu horretan nahitaez kokatu behar badira.

Aztertutako kasuaren interes publikoari dagokionez, maiatzaren 9ko 9/2014 Legea aplikatu behar da, zeinaren 2. artikulua hau ezartzen baitu: “Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira”, eta 3.c artikulua beste hau: “Komunikazio elektronikoen sareak zabaltzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, mutur batetik bestera konektibitate eta interoperabilitatea sustatuta, bai eta sarbidea ere, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan”.

Telekomunikazioen lege orokor horrek bere III. tituluaren (Zerbitzu publikoaren betebeharrak eta eskubide zein betebeharrak publikoak, komunikazio elektronikoen sareak ustiatzean eta zerbitzuak ematean), II. kapituluaren 2. atalean, “Komunikazio elektronikoen sare publikoak hedatzeari eragiten dion herri administrazioen araudia epigrafearen” pean, hau xedatzen du 34.2 artikuluan: “komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarritzeko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira.”

Era berean, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorra aplikatu behar da. Lege horren 22. artikulua honako hau ezartzen du: “Interes orokorreko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen araubide juridikoa.

1. “Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzu irrati bidezkoak, telebista bidezkoak eta atxikiak eta elkarrekintzazkoak interes orokorreko zerbitzu dira, eta ideiak askatasunez komunikatzeko eskubidea, informazioa komunikatzeko eta jasotzeko eskubidea, bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea eta enpresa askatasunerako eskubidea baliatuz ematen dira, eta berdintasuna, aniztasuna eta balio demokratikoak sustatuz (...)”

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan, proiektuan adierazten den bezala.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Itelazpi SAK sustatutako proiektuaren interes publikoa adieraztea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Proiektu hori Kripango udalerriko lurzoru urbanizaezinean (130. zenbakiko lurzatia, 1 poligonoa) instalatuko den komunikazio zentroa da.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoaren adierazpenak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 15a

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO